

Bidebieta

Irutxulo

Ur zaparrada handiek auzoan eragiten dituzten saneamendu arazoak konpontzea da azken boladan auzotarren helburu nagusienera. Bai sarrerako errotondan, eta baita Mendiolatik gertu dauden hainbat dorretan ere ura pilatu eta putzuak sortzen dira.

aldapan eraikia izanak, saneamenduari dago-kionez, arazo franko dakartzio Bidebietari. Alde batetik, auzoko sarreran dagoen errotondan euri jasa handiak direnean ura pilatzen da autoen kalterako. Dorreak Auzo elkarteko kideek gogorarazi digutenez, «irailetik hona laupabost aldiz izan ditugu uhol-

Saneamendu arazoak konpondu nahian



Ur zaparrada handiek makina bat arazo sortarazten dituztute auzoan.

deak errotondan, eta beraz, arazoa konpontzeko garaia da». Arazo hau konpontzeko egin diren azterketen arabera, Bidebietako saneamendu sarea zuzena da. Halere zera iragarri da: ura barneko saretik joan ordez errepedearen gainetik aldapan behera doala, errotondoraino. Errotondaren inguruan, ohiko estoldak nahikoa ez direla kontutan hartuz, errepedea zeharkatuko luke ten estoldak jartzea izan da proposatutako aukeretako bat. Teknikarien aburuz ikusteke dago estolda berri hauek arazoa konponduko ote duten. Gainera autoek eta motoek al-

tzarizko estolda horiek zeharkatzerakoan sortuko luketeen zarata gehiegizkoa izan liteke.

Mendiolatik eroritako ura

Bestalde, Mendiolatik eroritako urak arazoak sortzen ditu. Alde batetik, Jon Karla Guerra kalean ura lokatza bihurtu eta errepedera iritsi ohi da. Bestetik, Serapio Mujika kaleko 39. zenbakiko dorreko sarreran putzu handiak sortzen dira. Arazoari erantzuna emateko Maribel Manzano auzo elkarteko kideak eremu hauetako bizilagunen parte hartzea eskatu du, «inor bai-

no hobeto ezagutzen baitute nola jaisten den ura eta nolako eragina duen ur jasak. Beraz, ondo baino hobeto dakite hartuko diren erabakiak nahikoa ote diren ala ez».

Auzoko gazteen egoera aztergai

Udalaren ekimenez, psikologo eta giza hezitzaile batez osatutako lan taldea auzoko egoera aztertzen ari da antzematen diren beharrei aurre egin ahal izateko. Azterketa honek duen helburu nagusienetakoa gazteen ohiturak eta joerak aztertzea da. Lan honekin auzoko gazteei eskeintzen zaizkien zerbitzuak beraien beharrei egokitzea lortu nahi da.



Euri jasak saneamendu arazoak sortu ohi ditu auzoan

varela
MARKATZE SISTEMAK, S.L.

KAUTXU ZIGILUAK

Marzelino Soroa Plaza 1
20011 DONOSTIA
Tel. 943 469610 - Fax 943 468129

- GRABATUTAKO PLAKAK
- GARAIKURRAK
- ENPRESENTAKO OPARIK
- GRABAKETAK KRISTALEAN

zure zigilu automatikoa
oraintxe bertan,
... 15 MINUTUTAN



OIHALAK PISURA

KILOKA

ORDENAGAILU BIDEZKO BORDATUAK
(Inizialak, izenak, marrazkiak, eta abar.)

SOINEKOAK

ITZALKIAK

TXUKADERAK

MAINDIREAK

Artetxe jenerala, D • GROS • Tfnoa.: 943-28 07 56